



# Baigorriko Berriak



BAIGORRIKO BERRIAK - Bulletin municipal d'information - 2022ko Martxo - Mars 2022 - n° 4



Permettez-moi tout d'abord de vous présenter mes meilleurs vœux : que 2022 nous apporte à tous sérénité, tolérance et bienveillance et qu'elle nous permette de poursuivre les projets inscrits dans notre programme.

Après deux années perturbées, Baigorri comme d'autres communes du Pays Basque se souviendra de ce 9 décembre 2021, avec des intempéries qui auront causé des dégâts conséquents. Si certains travaux ont démarré dans l'urgence pour secourir les sinistrés, la suite des réparations va prendre du temps. cf. page suivante).

## Les projets en cours

En espérant surtout que tous les travaux de réparation n'auront pas trop d'incidence négative sur le budget et les souhaits de l'équipe municipale, voici un point sur les projets en cours :

Concernant les zones d'activités, les 2 projets de Bortzirieta et Kurutxeta font l'objet d'une étude de faisabilité et sont en cours d'acquisition, sous l'égide de la CAPB. Une commission d'attribution des lots sera constituée.

La bibliothèque du quartier de l'église va s'étendre et permettre à Annie Juantorena, d'accueillir les lecteurs intéressés dans de meilleures conditions.

Le sol du fronton va être restauré prochainement, les dégâts causés par l'atterrissement d'un hélicoptère avaient contraint d'annuler toutes les parties de pelote de la saison estivale. Cette année, le fronton de Baigorri est sollicité pour accueillir la finale de rebote de la Ligue du Pays Basque.

Concernant l'aménagement de la rue principale, nous souhaitons partager avec les Baigorriars une réflexion pour favoriser le partage de la traversée de Baigorri par les piétons, les cyclistes et les automobilistes, réduire la vitesse et installer des aires de stationnement. Nous désirons qu'elle fasse l'objet d'une réunion publique avant l'été à laquelle vous serez conviés.



Ez dugu sekulan ahantziko 2020ko urte hori, hain berezia, sekulan ikusi gabekoa, martxoaren 16az geroz COVID 19-ak arrunt baldintzatua, hiztegi berri bat ere ekarriz: konfinamendu, etxeratze-agindu, babes neurri, protokolo eta osasun neurri...

Lehenik ene desirarik hoberenak eskaini nahi dauzkizuet: 2022k lasaitasuna, tolerantzia eta onginahia ekar diezagun dener, eta gure programan sartuak diren proiektuak aitzinatzeko posibilitatea ukan dezagun.

Bi urte nahasi bizi izan ondoan, Baigorri eta Eskual Herriko bertze herri batzuk oroituko dira 2021eko abenduaren 9az, eta eguraldiak ekarri desmasiez. Larrialdiko obra batzuk abian jarri badira kalte haundienak pairatu zituen jendearen laguntzeko, lanen segidak denbora beharko du (ikus ondoko orrialdean).

## Abian diren proiektuak

Espero dugu konponketa lan guziek ez dutela herriko taldearen aitzinkontu eta nahietan eragin negatibo gehiegirik izanen. Huna beraz abian diren projektuer buruzko puntu bat: Antolamendu Gibelatuko Eremuer buruz, Bortzirieta eta Kurutxetako 2 proiectuen egingarritasuna ikertzen ari dira, eta erosten ari dira, Euskal Elkargoaren gerizapean. Lursailen esleitzeko komisio bat antolatuko da.

Gaineko karrikako liburutegia zabalduko da, eta Annie Juantorenak baldintza hobeak ukamen ditu interesatuak diren irakurleen errezipitzeko.

Pilota plaza nagusiko zola laster zaharberrituko da, helikoptero baten lurreratzeak egin kalteengatik, uda osoko pilota partidak ezeztatu behar izan baitziren. Aurtent, Baigorriko pilota plaza nagusiak Euskal Herriko Ligako erreboteko finala errezipitzuko du.

Karrika nagusiaren antolaketari buruz, gogoeta bat egin nahi dugu Baigorriarekin, Baigorri zeharkatzea errexagoa eta hobeki partekatua izan dadin oinezkoendako, bizikletariendako eta auto gidariendako, abjadura ttipitzeko eta aparkalekuak ezartzeko. Bilkura publiko bat egin nahi dugu uda baino lehen. Gomittuak izanen zirezte.

Mairie de Baigorri-ko Herriko etxea

Tel. 05 59 37 40 80

mairie.baigorri@orange.fr

www.baigorry.fr

# ACTUALITÉS

## Des investissements dans la voirie

En 2021, la commune de Baigorri a investi plus de 220 000 euros dans le renouvellement et l'entretien de la voirie :

Voirie communale : Borddako bidea, Larrabuztaneko bidea, Larlako bidea, Tukulu bidea, Oronozaldeko bidea, aménagement du quartier Leizparze, Uharrietako bidea, Domingohandieneko bidea,

Campagne d'élagage, de busages et de curages de fossés, Réfection des chemins ruraux de Germietako bidea et Gastigar Lepoa,

Aménagement du bord de voirie au quartier Bastida pour les randonneurs souhaitant se rendre à Iparla (photo ci-dessous),

Aménagement trottoirs pour la sécurisation de la maison d'assistantes maternelles « MAM » à Gaineko karrika et de la traversée du pont Etxeberrienea.



## Intempéries

Suite aux intempéries du 9 décembre dernier, 133 points d'affaissement ont été relevés sur la commune, reconnue en état de catastrophe naturelle. La préfecture, le département, la communauté d'agglomération Pays Basque ont annoncé des aides qui nous permettront de mener à bien tous les travaux.

Nous souhaitons avant tout opérer des réparations durables et nous devons pour cela travailler avec des bureaux d'études et tenir compte des avis de la police de l'eau. Ainsi, certains chantiers intervenant sur les cours d'eau ne sont autorisés qu'à partir du 15 mars pour protéger la reproduction des poissons.

Le montant des travaux liés à la remise en état suite aux intempéries représente un total de plus de 2 millions d'euros.

A noter que 24 entreprises ou particuliers et 33 exploitations agricoles ont été sinistrés par les dégâts causés.

Souhaitons que chacun fasse preuve de patience et d'indulgence dans les choix de priorité. Nous pouvons féliciter nos agents communaux qui sont toujours volontaires pour intervenir dans l'urgence et des conditions difficiles lors de ces épisodes climatiques. Remercions également ceux qui ont participé à l'entraide dans les quartiers avec leurs voisins directement impactés.

# BERRIAK

## Bideetako inbestimenduak

2021ean, Baigorriko herriak 220 000 euro baino gehiago inbestitu zituen bideen berritzeko eta entretenitzeko :

Herriko bideak: Borddako bidea, Larrabuztaneko bidea, Larlako bidea, Tukuloko bidea, Oronozaldeko bidea, Leizparzeko auzoaren antolatzea, Uharrietako bidea, Domingohandieneko bidea,

Xedarratzea, hodien ezartzea eta arroilen garbitzea,

Germietako bidearen et Gastigar Lepoko bidearen arranjatzea,

Bastidako auzoko bide bazterren antolatzea, Iparlarat joan nahi duten ibiltariendako egokituz,

Gaineko karrikako haurtzain-etxea eta Etxeberrieneko zubia segurtasunean ezartzeko espaloien antolatzea.

## Aro gaixtoa

Joan den abenduaren 9ko aro gaixtoaren ondorioz 133 lita-leku zerrendatu dira herrian, eta hondamendi natural egoera onartua izan da. Prefekturak, Departamenduak eta Euskal Elkargoak laguntzak hitz eman dituzte, lan guziak burutzeko gisan.

Lehen-lehenik, Iazarako arranjatu nahi ditugu, eta hortako ikerketa bulegoekin lan egin behar dugu eta uraren poliziaren ikusmoldeak gogoan hartu. Beraz, martxoaren 15a arte, erreketan egin behar diren zenbait lanek ez dute baimenik izanen, arrainak ugaltzen ari direlakotz.

Aro gaixtoaren ondorioz egin beharreko lanen kostua 2 milioi euro baino gehiagokoa da.

Aipatu behar da 24 empresa edo partikular eta 33 etxalde azkarki kaltetuak izan direla desmasien ondorioz.

Espero dugu bakotxak pazientzia izanen duela eta ontsa hartuko dituela lehentasunez egin beharko diren hautuak. Eskertzen ahal ditugu gure herriko langileak, beti boluntario baitira larrialdian eta baldintza zaletan esku hartzeko, klima-gertakari latz horien karietarat. Gisa berean, zuzenean kaltetuak izan diren auzokoak laguntzen ari izan diren bizilagunak eskertzen ditugu.



# BON À SAVOIR !

## Larrazkena se pérennise à l'AAPAVA

1er employeur de la commune avec 44 salariés pour 33 emplois ETP (équivalent Temps Plein), l'EHPAD Larrazkena a fêté ses 30 ans en 2021. Il offre à ce jour 46 places d'hébergement permanent, 2 places d'accueil de jour et le « Pôle Ressources Goxoki etxean », ouvert aux personnes âgées vivant à domicile sur l'ancien Canton de Baigorri. Il propose d'autres prestations gratuites (cf.document joint).

Pour s'adapter aux changements du paysage médico-social et pérenniser la structure, Larrazkena s'est rapproché des homologues d'Iholdy, Izturits et Labastide-Claarence pour fonder l'AAPAVA (Association d'Aide aux Personnes Agées des Vallées).

Fort de son identité et de ses valeurs, le Conseil d'Administration de Larrazkena a choisi de garder ce statut associatif à but non lucratif qui garantit des prestations et des tarifs maîtrisés.



## Télé-alarme pour personnes âgées

Le CCAS de Baigorri prend désormais en charge une partie des frais de télé-alarme, quelque soit le prestataire, sous conditions de ressources et s'il n'est pas déjà éligible à d'autres aides financières.



## Portage des repas livrés à domicile

La Mairie n'assure plus la livraison des repas à domicile, compétence prise par le CIAS de la CAPB (Communauté d'Agglomération Pays Basque). Suite à un marché public, le traiteur Suhari a été choisi et celui-ci fait appel à la Poste pour les livraisons, à partir du 1er mars 2022. Désormais, pour les nouveaux bénéficiaires ou les changements, il faut s'adresser directement au traiteur Suhari (Tel. 07 86 35 44 86 - mail « commercial.maule@suhari.fr »).

# BAZINAKITEN ?

## Larrazkena, Ibarretako Xaharrei Laguntzeko Elkartearen

Herriko lehen enplegatzalea da, lanaldi osoaren baliokide diren 33 lanposturekin, 44 langilerentzat, Larrazkenak 30 urte bete ditu 2021ean, eta orain ostatu iraunkorreko 46 leku, eguneko harrerako 2 leku eta Baigorriko kantonamenduan beren etxean bizi diren adinekoendako irekia den «Goxoki Etxean Baliabide Zentroa» eskaintzen ditu. Bertze zerbitzu batzuk eskaintzen ditu, kitorik (ergoterapia, dietetika, lagunzaileer eskaini laguntza).

Ingurumen mediko-sozialaren aldaketetari egokitzeko eta egituraren iraunkortzeko xedez, Larrazkena Iholdiko, Izturitzeko eta Bastida-Arberoko zaharretxeetatik hurbildu da, Ibarretako Xaharrei Laguntzeko Elkartearen sortzeko.

Bere nortasunak eta balioak indarturik, Larrazkenako Administrazio Kontseiluak erabaki du irabazteko xederik gabeko elkarreko estatutu hori atxikitzea, horrek zerbitzuak eta tarifa mugatuak bermatzen baititu.

## Adinekoer zuzendu tele-alarma

Baigorriko Herriko Egintza Sozialeko Zentroak bere gain hartzen du tele-alarmaren gastuen parte bat, edozein izanik ere zerbitzu-emailea, zerbitzua eskatzen dutenen irabaziaren heina ez baldin bada sobera gora, eta ez baldin badute bertze diru-laguntzarik erreuibitzeko posibilitaterik.

## Apairuak etxerat eramanik

Herriko Etxeak ez du gehiago apairurik etxerat eramaiten, Euskal Elkargoko Gizarte Ekintzako Herriarteko Zentroak baitu eskumen hori hartu. Merkatu publiko baten ondorioz, Suhari janari prestatazalea hautatua izan da, eta horrek, 2022ko martxoaren 1. etik aitzina, postari eskatu dako garraioa egitea. Hemendik goiti, onuradun berrien edo aldaketen kasuan, Suhari tratularia zuzenean deitu behar da (Tel.: 07 86 35 44 86 – Helbide elektronikoa: commercial.maule@suhari.fr).

# TRANSITION ÉCOLOGIQUE

## Actions Syndicat Vallée

La commission syndicale de la vallée de Baigorri continue à améliorer la voirie pastorale (enrobé du col d'Aharza à Urdantzia, Atxoainia vers Apaloiko lepoa). Le gyrobroye en complément de l'écoubage vise aussi à améliorer l'appétence de l'herbe en estive, ainsi que la gestion pastorale mise en place avec les éleveurs.

Dans le dispositif Natura 2000, des bosquets d'arbres (150m<sup>2</sup>) avec différentes essences ont été plantés sur des zones dépourvues sur Oilandoi, Munhoa et Arrola. Ces chantiers accompagnés par l'ONF ont été réalisés par les éleveurs concernés, des bénévoles de l'association "les Blongios" et le CPIE Pays Basque. Ces travaux ont été financés à 80 % par la région Nouvelle Aquitaine dans le cadre de l'amélioration de la trame verte et du confort des animaux en estive.



## Exploitations agricoles de demain

A l'initiative de la Commune, un diagnostic des exploitations agricoles de Baigorri a été lancé avec le concours d'Euskal Herriko Laborantza Ganbara (EHLG) dans le but de connaître de manière précise la situation des 79 fermes du village, les besoins et les souhaits des agriculteurs.

La finalité est de maintenir au maximum l'activité agricole dans la Vallée. Les entretiens dans les fermes se sont terminés cet hiver. Un rapport sera présenté à tous les baigorriens dans une réunion publique courant 2022.

# TRANSIZIO EKOLOGIKOA

## Ibarreko sindikataren ekintzak


Baigorriko Ibarreko Mendi Elkargoak artzaintza bideak hobetzen segitzen du (Aharzako lepotik Urdantziar, Atxoainiatik Apaloiko lepo alderat). Landaretza mekanikaz xehatzen da eta mendiko suak ere erabiltzen dira alhapideetako belarra jangarriago izan dadin eta hazlekin plantan eman artzaintza-kudeaketa eraginkorragoa izan dadin.

Natura 2000 dispositiboaren barnean, hainbat motatako arbola multzoak (150m<sup>2</sup>) landatu dira arbolak eskas ziren lekuetan, Oilandoi, Munhoan eta Arrolan. Hunkiak diren hazleek, "Blongios" elkarteko kideek eta Euskal Herriko Ingurumenaren aldeko Ekimen Zentro Iraunkorrik egin dituzte obra horiek, ONF erakundeak lagundurik. Akitania Berriko Eskualdeak % 80ko heinean finantzatu ditu lanak, "sare berdearen" eta mendian alhatzen diren kabalen erosotasunaren hobetzeko.

## Etorkizuneko etxaldeak

Herriaren iniziatiibaz, Baigorriko etxaldeen diagnostikoa egin da, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen laguntzarekin, herriko 79 etxaldeen egoeraren, laborarien beharren eta nahien zehazki ezagutzeko xedez.

Helburua da gure ibarreko laborantza-aktibitatea ahal bezainbat atxikitzea. Baserriean egin elkarrizketak neguan bururatu dira. Txosten bat presentatuko zaie baigorriar guzier, 2022an eginen den bilkura publiko batean.



# TRANSITION ÉCOLOGIQUE

## Projet de valorisation de la carrière Bortzirieta

L'objectif est de rouvrir ce site au public avec des aménagements de découverte et de mise en valeur du patrimoine local.

La 1ère étape est de réaliser un **diagnostic écologique** (géologie, faune, flore). Il a été retenu dans les projets du programme Leader-Montagne Basque avec à la clé des subventions de la CAPB, la Région et le Département (80% au total, la commune finançant les 20% restants).

Nous souhaitons associer les habitants et les écoles à ce travail, via une 1<sup>re</sup> réunion publique le mois prochain et la commission extra-municipale de Transition écologique (inscrivez-vous en appelant la Mairie !)



## La recyclerie Lokala réouvre à Irouleguy

La recyclerie a quatre fonctions : la collecte, la revalorisation, la redistribution et la sensibilisation. Les habitants peuvent apporter directement, pendant les horaires d'ouverture de la recyclerie, les objets en bon état dont ils n'ont plus l'utilité. Les objets réceptionnés sont triés, vérifiés et nettoyés, puis proposés à la vente à des prix très modérés.

A Lokala vous pouvez soutenir une consommation responsable en réduisant les déchets tout en vous équipant à moindre coût. On y trouve toutes sortes d'objets : vélos, déco, jeux, luminaires, livres, CD et DVD, vaisselle, petit mobilier, puériculture...

lundis et samedis matins de 10h à 13h et les mercredis de 10h à 13h et de 15h à 18h à Irouleguy Rte St Jean Pied de Port

[www.lokala.eus](http://www.lokala.eus)

Tel 06 41 95 35 26



## Piéger les frelons asiatiques, maintenant !

Introduit accidentellement en France en 2004, le frelon asiatique est un nuisible très invasif qui se nourrit d'autres insectes, notamment l'abeille.

### Contre les frelons asiatiques, faites des pièges maintenant !

Chaque fondatrice piégée = un nid en moins !!!

Jusqu'au 1er mai, vous pouvez piéger des reines fondatrices de colonies de frelons asiatiques. Passée cette période, vous risquez de capturer de nombreuses espèces autochtones (frelons jaunes, guêpes, etc ...). Il faudra donc retirer vos pièges.

Plus de détail sur le site internet de la Mairie : [www.baigorry.fr](http://www.baigorry.fr)



Une dominante noire - un seul anneau jaune orangé  
Nagusiki beltza, hori-iranja koloreko eraztun bakarra

# TRANSIZIO EKOLOGIKOA

## Bortzirietako harrobiaren baloratzeko proiektua

Helburua da leku hori publikoari berriz irekitzea, hango ondarearen ezagutzeko eta baloratzeko balioko duten muntadurekin. Lehen urratza **diagnostiko ekologikoaren** egitea da (geologia, fauna, flora). Leader-montagne Basque programaren proiektuetan sartu da eta, horri esker, Euskal Elkargoaren, Eskualdearen eta Departamenduaren dirulaguntzak eskuratuko ditu (% 80 orotarat, gelditzen den % 20a herriak ordainduko du).

Nahi dugu herritarrek eta eskolek lan hortan parte har dezaten, heldu den hilabetean eginen den lehen bilkura publikoaren bidez eta Herriko Kontseilutik kanpoko Transizio Ekologikorako komisioaren bidez (izena eman, Herriko Etxerat telefonatz!).

## Lokala birziklategia berriz ireki da, Irulegin

Birziklategiak lau funtzio ditu: biltzea, berriz balioztatzea, berriz banatzea eta sensibilizatzea. Herritarrek zuzenean eramaiten ahal dituzte gehiago erabiltzen ez dituzten gauzak, estatu onean baldin badira, birziklategiaren irekitze-tenoreetan. Errezibitzen diren gauzak sailkatuak dira, egiaztuak eta garbituak, eta gero saltzeko proposatzen dira, prezio oso merkean.

Lokala birziklategian, kontsumo arduratsua sustengar dezakezu, hondakinak murriztuz, eta behar dituzun gauzak merke erosiz.

Gisa guzietako gauzak badira: bizikletak, apaintzeakoak, jokoak, argiak, liburuak, CDak eta DVDak, baxerak, muble ttipiak, haur ttipiendako puskak...

Astelehen eta ibaiakitz goizetan: 10:00etatik 13:00etarat; asteazkenetan: 10:00etatik 13:00etarat eta 15:00etatik 18:00etarat, Irulegin, Donibaneko Garaziko bidean.

[www.lokala.eus](http://www.lokala.eus) – Tel 06 41 95 35 26

## Liztor asiarrak harrapatu, orain!

Liztor asiarra ustekabean sartu zen Frantzian, 2004an. Biziki inbaditzalea eta kaltegarria da, bertze intsektuak jaten baititu, erleak bereziki.

**Liztor asiarren kontra, zepoak egin itzazu, orain!**  
**Sortzaile bat gutiago = kafira bat gutiago!**

Maiatzaren 1.a arte, liztor asiarren koloniak sortuko lituzketen erreginen harrapatzeko zepoak ezartzen ahal dituzu. Data hori pasatu eta, bertze espezie anitzetako intsektuen harrapatzeko arriskua bada, partikulazki liztor horiak, lezafinak, etab. Beraz, zepoak kendu beharko dituzu.

Informazio gehiago Herriko Etxearren webgunean:  
[www.baigorry.fr](http://www.baigorry.fr)

# ACTUALITÉS

## La place s'anime !

Le **Syndicat des vins d'Irouleguy** s'installe dans les anciens locaux de la Zaharrer Segi, derrière la Mairie. Celle-ci occupe désormais le 1er étage de l'ancienne Mairie avec l'école de musique Iparralai.

Un espace de **Coworking** de 5-6 postes (espace de travail partagé) est ouvert au RDC de la nouvelle Mairie, à côté de l'Office de Tourisme. Le tarif est de 5€ la demi-journée et 8€ la journée. Des abonnements mensuels sont également proposés à tarif réduit. S'adresser à la Mairie

Le **jardin de la Mairie** a été équipé de jeux pour les enfants. L'investissement de 8 300 euros est déjà très apprécié des enfants et des parents ! (photo ci-dessous)



## Bienvenue à Monsieur GUILHEM nouveau Principal

Souhaitons la bienvenue à Monsieur Benoit Guilhem, à la tête du collège Jean Pujo. Agé de 45 ans il vient du collège de Chantaco où il exerçait les fonctions de principal adjoint après avoir été de longues années professeur de mathématiques. Le collège récupère ainsi un poste de Principal à plein titre.



## Appel à projet pour un socle numérique dans les écoles élémentaires du village

Une convention entre l'académie de Bordeaux et la Mairie de Baigorri a été signée concernant les équipements informatiques et les ressources numériques (dispositif AAPSNEE).

La Région Nouvelle Aquitaine finance à 70% le projet à hauteur de 11 640 €, la commune prenant en charge les 4990 euros restants. Ils seront livrés par une entreprise locale à la rentrée prochaine 2022 dans les 3 écoles primaires du village.

# BERRIAK

## Plaza animatzen ari da!

**Irulegiko arnoen sindikata** Zaharrer Segiren lehengo egoitzan plantatu da, Herriko Etxearen gibelean. Zaharrer Segi Herriko Etxe zaharreko lehen estaian da orain, Iparralai musika eskolarekin batean. 5-6 postuko **Coworking** gune bat (laneko eremu partekatu bat) ireki da Herriko Etxe berriko beherean, Turismo Bulegoaren ondoan. Egun erdiko tarifa 5 €koa da, eta eguneko tarifa 8 €koa. Hilabete osoko abonamenduak ere hartzen ahal dira. Herriko Etxearekin aipa.

Haurrendako jokoak ezarriak izan dira **Herriko Etxeko lorategian**. 8 300 euroko inbestimendua izan da. Haurrek eta burasoek biziki estimatzen dituzte!

## Ongi etorri GUILHEM Jaun zuzendari berriari

Ongietorri Benoit Guilhem jaunari, Jean Pujo ikastetxearen zuzendariari. 45 urte ditu, eta Chantacoko ikastetxetik heldu da, han zuzendari laguntzaile baitzen, urte anitez matematika irakasle izan ondotik. Beraz, ikastetxeak denbora osoko zuzendari postua errekuperatzen du.

## Projetu-deialdia, herriko lehen mailako eskoletan oinarri digital baten muntatzeko

Bordeleko akademiaren eta Baigorriko Herriko Etxearen arteko hitzarmena sinatu da, informatika-ekipamenduer eta baliabide digitaler buruz (AAPSNEE dispositiboa). Akitania Berriko Eskualdeak % 70eko heinean finantzatuko du projektua, 11 640 euroko heineraino. Tresnak hemengo empresa batek ekarriko ditu heldu den sartzean (2022an) herriko lehen mailako hiru eskoletan.

# ACTUALITÉS

## Jumelage Tafalla / Baigorri

C'est en 1979 que fut officialisé le jumelage de **BAIGORRI** et le voisin navarrais **TAFALLA**.

La vivacité de leur culture, la richesse patrimoniale architecturale et historique, la proximité géographique constituent un trait d'union majeur entre les deux communes, gardant une âme et un cœur navarrais.

Il y a 42 ans, **les communes de Tafalla et Baigorri ont signé un partenariat de jumelage transfrontalier qui a été renouvelé cette année via la signature d'une convention.**

A ce titre, avec l'aide du gouvernement de Navarre et grâce à l'octroi de fonds européens, les communes de BAIGORRI et TAFALLA ont organisé à Baigorri les 16 et 17 octobre 2021 des rencontres culturelles entre différentes associations et entités (Irulegiko Irratia / La Voz de la Meridad ; Tafallako peñak / Comité des fêtes de Baigorri ; Altafaylla fundazioa / Basaizea ; Rotten XIII, Lucians, Galtzagorriak et Odoliak / Groupes de musique Xutik et The Dotz ; Gabalzeka et Puntido / Groupes de danse Arrola de Baigorri et Tafallako dantza taldea de Tafalla ; Zaharrer Segi, Garazi Baigorriko AEK et les deux communes Baigorri et Tafalla). L'occasion de faire un pas supplémentaire pour renforcer nos relations par le biais de concerts, rencontres, repas animés à Plaza Xoko.



## Projet « Geuretik sortuak » en soutien à la création en langue basque

L'association Udalbiltza (Groupement de communes et associations à but transfrontalier) a pour objet de développer des projets sur l'ensemble du Pays Basque. La culture étant l'un de ses domaines de travail, Udalbiltza a impulsé en 2021 le projet « **Geuretik Sortuak** » dans le but de favoriser la création artistique en euskara. L'évènement se déroulera au sein de 32 communes du Pays Basque situées sur les 7 provinces, dont la commune de BAIGORRI qui y participe tant financièrement que techniquement.

La commune d'Urepel s'associe à celle de Baigorri pour co-organiser les 5 pièces de théâtre en basque suivantes créées à cette occasion par des compagnies de théâtre du Pays basque sud :

- 5 mars 2022 à UREPTEL : « Trapu zikinak »
- 16 avril 2022 à BAIGORRI : « Bidaide » (Metrokuadroka),
- 7 mai 2022 à UREPTEL : « Herri minak »,
- 23 juillet 2022 à BAIGORRI : « Eresia » (Oier Zuñiga)
- 9 septembre 2022 à UREPTEL : « Ttanttaka ».



# BERRIAK

## Tafalla/Baigorri birazkatzea

1979an egin zen ofizial BAIGORRIren eta TAFALLAren arteko birazkatzea.

Haien kulturaren bizitasuna, ondarearen aberastasuna, bai arkitekturaren, bai historiaren aldetik, eta hurbiltasun geografikoa dira bi herrien arteko loturak azkartzen dituzten lokerri nagusiak, biek nafartar arima ere bizirik atxikitzen baitute.

Duela 42 urte, **Tafallako eta Baigorriko herriek mugaz gaindiko birazkatze-partaidezta sinatu zuten, aurten berritu dena, hitzarmen bat sinatzu.**

Gisa hortan, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin eta Europako diru-laguntzari esker, BAIGORRIko eta TAFALLAKO herriek, 2021eko urriaren 16an eta 17an, elkarreta eta entitate anitzen arteko elkarretaratze kulturalak antolatu dituzte Baigorri (Irulegiko Irratia / La Voz de la Meridad; Tafallako peñak / Baigorriko besta komitea; Altafaylla fundazioa / Basaizea; Rotten XIII, Lucians, Galtzagorriak eta Odoliak / Xutik eta The Dotz musika taldeak; Gabalzeka eta Puntido / Baigorriko Arrola eta Tafallako dantza taldea; Zaharrer Segi, Garazi-Baigorriko AEK eta Baigorriko et Tafallako udalak). Gure harremanen azkartzeko bertze urrats baten egiteko parada izan da, Plaza Xokon, kontzertu, elkarretaratze eta apairuen bidez.



## Euskarazko sorkuntzaren laguntzeko «Geuretik sortuak» proiektua

Udalbiltza elkarrekin (mugaz gaindiko helburuak dituzten herri eta elkarrekin batzuen elkarretaratzea) Euskal Herri osoan proiektuak garatzeko helburua du. Kultura bere lan eremuetako bat izanik, Udalbiltza 2021ean **Geuretik Sortuak** proiektua sustatu du, euskarazko sorkuntza artistikoa laguntzeko xedez. Gertakaria 7 probintzietan dauden Euskal Herriko 32 herritan eginen da; horien artean, ekonomikoki eta teknikoki parte hartzen duen BAIGORRIKO herria bada.

Urepeleko herria Baigorriarekin elkartu da, Hego Euskal Herriko antzerki konpainiek horretarako sortu dituzten 5 euskarazko antzerki emanaldien antolatzeko:

- 2022ko martxoaren 5ean, UREPELEN: «Trapu zikinak»,
- 2022ko apirilaren 16an, BAIGORRI: «Bidaide (Metrokuadroka )»,
- 2022ko maiatzaren 7an, UREPELEN: «Herri minak»,
- 2022ko uztailaren 23an, BAIGORRI: «Eresia» (Oier Zuñiga),
- 2022ko buruilen 9an, UREPELEN: «Ttanttaka».

# LE CARNET EGOERA ZIBILA

## 2021 Décès / Heriotzak

AGUERREBERE veuve ROZADOS Félicie  
ALDAX Jean, Léon  
ARDANS veuve GOYHENETCHE Jeannette  
CARRICANO Anita, Marie-Hélène  
CEDARRY Jean  
ÇUBIAT Martin  
CURUTCHAGUE veuve CARRICABURU Raymonde  
DA CONCEIÇÃO SIMOES José, Manuel  
DE PORTUONDO Jésus  
ERNAGA Antoine  
ERNAGA veuve ETCHEVERRY Marie, Jeanne  
GALLARD Jean-Michel  
HAPETTE veuve CIAURRIZ-VICENTE Marie  
HIRIGARAY épouse DORRÉ Marie-Claudine  
ICÉAGA veuve URRUTIA Marie Jeanne  
IRIART Jean, Raymond  
LANDABOUROU Pierre  
LAXAGUE Louis  
MAURIN Roger, Clément  
MENDIBIL veuve GOMIS Marie-Jeanne  
MICHELENA veuve COLLOMB Hélène  
MOCHO veuve ESPIL Véronique  
MORTALENA veuve OÇAFRAIN Gracieuse  
NABAL veuve PÉRÉ Denise, Suzanne  
OÇAFRAIN Pierre  
OLÇOMENDY veuve COSTERA Marguerite-Marie  
ORONOS Jean, Etienne  
PIQUET veuve POUJOULA Marie-Ange  
RAPHAEL Christian, Louis, Roger  
SALLABERRY Gratien Pierre  
SÉMÉRÉNA Maurice  
VIGIER Marcel, Adrien, Emile  
ZUBILLAGA Marie-Thérèse

## 2021 Naissances / Sortzeak

ARREGUY HUMAYOU Mattin  
BIDART Luma  
CASENAVE Odei  
COSCARAT Ellande  
DRILLON BIDART Ainara  
INDABERE BORNARD Hodei  
KERRIEN ESCUTARY Unai  
KONATE MIELHUERRY Eliass  
LARRAMENDY Jokin  
OSPITAL Betti  
PARAGE Elio  
TAMBOURIN Gaizka  
ZINT Mattin

## 2021 Mariages / Ezkontzak

MACHET Hugo & VILLANI Elisa Gilberte Josiane  
MENARD Yann Michel Pierre & CAVELIER Clotilde Isabelle Marie  
BERNARD Alexandre Maxime & SCHWOB Camille Odile  
CASENAVE Laurent Régis & BEAUVAIS Mélissa Gaëlle

### *J'ai une question Monsieur le Maire*

Si vous souhaitez interroger M. le Maire ou simplement faire part de vos remarques, déposez ou adressez un courrier à M. le Maire :  
Mairie - 64430 St Etienne de Baigorry ou adressez un mail à :  
[mairie.baigorri@orange.fr](mailto:mairie.baigorri@orange.fr)



# MEHAKA

## Ouverture de MEHAKA en 2022

Cet été nous inaugurerons Mehaka, le centre historique de la Basse-Navarre, aménagé au rez-de-chaussée de l'ancienne mairie. Le projet s'inscrit dans le projet transfrontalier Poctefa « Kintoan Barna » dont la commune est membre depuis 2018. L'exposition est le fruit de trois ans de travail mené par un comité scientifique, un comité élargi et une entreprise de scénographie. Elle vous dévoilera l'histoire de la Basse-Navarre du temps du royaume de Navarre à travers des cartes, des maquettes et bien d'autres dispositifs. La visite du centre pourra être accompagnée d'une balade historique au cœur du village pour en apprendre encore plus sur l'histoire locale. Plus d'informations au prochain bulletin.



## MEHAKAren irekitzea 2022an

Uda hantan, Mehaka estreinatuko dugu. Baxenabarreko historiari buruzko zentroa da, Herriko Etxe zaharreko beherean plantatua. Proiectua mugaz gainteko Kintoan Barna Poctefa proiectuan sartzen da. Gure herria proietu horren kide da 2018az geroz. Batzorde zientifiko batek, batzorde zabal batek eta eszenografia enpresa batek egin hiru urteko lanaren fruitua da erakusketa. Nafarroako Erresumaren denborako Baxenabarreren historia esplikatuko dauzu, mapa, maketa eta bertze hainbat baliabideri esker. Zentroaren bisitaren osatzeko, ibilaldi historiko bat egiten ahalko da herriaren bihotzean, hemengo historiaz oraino gehiago ikasteko. Informazio gehiago ondoko berripaperean.

### *Galdera bat badut, jaun auzapeza*

Zerbait galdu nahi badakozu jaun auzapezari edo, bertzerik gabe, zure oharren berri eman, gutun bat utz edo igor ezazu helbide huntarat: Jaun Auzapeza - Herriko Etxea - 64430 Baigorri, edo mezu elektroniko bat helbide huntarat: [mairie.baigorri@orange.fr](mailto:mairie.baigorri@orange.fr)